

ARRASATEKO BATZAR IREKIA

Arrasateko Udaletxearen eta herriko "Danok" elkartearen laguntzarekin, 1973ko ekainaren 21ean, Udaltzeko batzar gela nagusian izan dira batzar irekiak.

Euskaltzainburuaren agurrez eman zaio hasiera. Ondorean, euskaltzain laguntzaile berriei eman zaizkie diplomak: Gregoire Eppherre, Mikel Zarate, Jose Miguel Zumalabe eta Martin Ugalde jauneri. Manuel Olaizola "Uztapide" eta Jon Bilbao jaunak ezin izan dira etorri, bata osasunagatik eta bestea Ifar-Ameriketara bizi dalako.

Jaime Kerexeta jaunak, "Juan Karlos Gerra, Idazle eta heraldikalari" gaiez hitzaldia.

Jose Antonio Arana jaunak, "Sebero Altuberen bizitza, musika lanak eta bibliografiari buruz". Azkenean Euskaltzaindiak Gernika eta Lunoko Udalaritza Altuberen izena jar dezaion eskabide bat egitea proposatzen du. Onartzen da.

Aita Luis Villasante jaunak, "Sebero Altuberen testamentua oroituz".

Juan Garmendia "Zeleta" jaunak, bi hitz, "Altuberen anaia"ri buruz.

Eta, azkenik, bukatzeko, Jean Haritschelhar Euskaltzaindikoko buruordeko jaunak agurrezko hitzak.

Idazkaria

LEKEITIOKO BATZAR IREKIA,
Eusebio M.^a AZKUE zenaren omenez

Lekeition, Eusebio Maria Azkue zenaren omenezko jaialdia eta batzar irekia, hitzaldiz, bere heriotzaren ehungarren urteburua delako.

1973ko azaroaren hamaikagarrenean, goizeko 10 terdietan, eliz-nagusian elkar-meza. Ondorean, Amorotoko "Egunguentia" dantza taldeak zenbait dantza eliz-atarian.

Hamabietan bilera irekia. Udaletzeko gela nagusia jendez bete zen. Cazalis alkate jauna eta herriko beste zenbait agintarirekin batean, Villasante buru zela, Gorostiaga, Erkiaga, Irigoyen, Akesolo, Alzola Gerediaga, Arkotxa, J. Berrojalbiz, Gandiaga, S. Garmendia, Kintana, Lete, Lizundia, Oleaga, Oregi, Zaitegi eta Zarate Euskaltzaindikoko jaunak osatu zuten mahaiburua, San Martin idazkari zela.

Idazkariak bileraren asmo eta helburuak agerrarazi zituen.

L. Villasante euskaltzainburu jaunak agurrezko hitzak, Azkuetarrak eta Eusebio Erkiaga lekeitiarren gorasarrez. Eta honen euskaltzain sarrera hitzaldia aurkeztu zuen.

Ondorean, Irigoyen eta J. San Martin euskaltzainak gela nagusitik atera eta kanpoan zain zegoen Eusebio Erkiaga jauna sarrarazi zuten, euskaltzain sarrera-hitzaldia irakur zezan.

Eusebio Erkiaga jaunak, "Eusebio M.^a Azkue, gizon eta idazle" zuen hitzaldiaren gaitzat, eta E. M. Azkue zenaren bizitza zertzeladak zehatz-mehatz agertu zituen, haren olerkari dohainak zenbait gaitan adiaraziaz, tarteka haren bertso batzuk irakurriaz eta hark zuen idazkera bitxia goratuaz.

Bukatzean txalo hots handia jaso zuen.

Ohi denez, Juan Gorostiaga euskaltzain jaunak erantzun zion, Eusebio Erkiagaren meritu eta idazlanen berri emanez, eta olerkari zein eleberrigile bezala irabaziak dituen sariak aipatuaz, eta, azkenik, euskara batuari buruzko eritzi batzuk agerrarazi zituen.

Ondorean, Euskaltzaindiaren izeneko euskara irakasle tituluak banatu ziren Arrasaten eta Donibane Lohitzunen eratu ziren esaminetan ondo irten zirenen artean.

Azkenik, "Eusebio M.^a Azkue olerki saria", Moral Etxebarrieta Lekeitioko Bizkai Aurrezki Kutxako zuzendari jaunaren eskutik Bitoriano Gandiagari eta aipamenezko sariak X. Lete eta A. Urretavizcayari eman zitzaizkien.

Bukatzeko, idazkariak, herriko agintariak, Guraso Elkartekoak eta Lekeitioko herria Euskaltzaindiaren izenean eskertu zituen egungo bilera egiteko eman zituen erraztasuna eta laguntzagatik.

Idazkaria